

<b>ARDURALDI PARTZIALEKO IRAKASLE ELKARTUEN KONTRATUAK ESLEITZEKO LEHIAKETA PUBLIKOA EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA</b>	<b>CONCURSO PUBLICO PARA LA ADJUDICACION DE CONTRATOS DE PROFESORAS Y PROFESORES ASOCIADOS EN RÉGIMEN DE DEDICACIÓN A TIEMPO PARCIAL DE LA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO</b>
Erabaki honen xedea da irakasle elkartuak kontratatzeko deialdia egitea, martxoaren 22ko 2/2023 Lege Organikoaren babesean (79. artikulua) eta oinarri hauei jarraikiz.	Es objeto de la presente Resolución realizar la convocatoria de contratos de la categoría de Profesorado Asociado al amparo de lo establecido por la Ley Orgánica 2/2023, de 22 de marzo (artículo 79), conforme a las siguientes bases.
<b>OINARRIAK</b>	<b>BASES</b>
<b>1. Lehiaketetan parte hartzeko baldintzak</b>	<b>1. Requisitos para participar en el concurso</b>
<b>1.1- Baldintza orokorrak:</b>	<b>1.1- Requisitos de carácter general:</b>
1.- Spainiar nazionalitatea izatea, kalterik egin gabe Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuko 57. artikuluan zehaztutakoari. 2.- Hamasei urte beteta izatea.	1. - Tener la nacionalidad española, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 57 del Estatuto Básico del Empleado Público. 2.-Tener cumplidos dieciséis años.
3.- Diziplina expedientearen bidez estatuko administrazioko zerbitzutik edo autonomia, erakunde eta tokiko administrazioetatik aldendua ez izatea, eta eginkizun publikoak betetzeko ezgaitua ez izatea. Spainiar nazionalitatea ez dutenek ez dute izan beharko kasuan kasuko estatuko funtzio publikoan jardutea eragozten dien diziplina zehapenik edo kondena penalik. Zinpeko aitormena aurkeztuta egiaztatuko da.	3.- No haber sido separada ni separado, mediante expediente disciplinario del servicio de la Administración del Estado o de la Administración Autónoma, Institucional o Local, ni hallarse inhabilitada ni inhabilitado ni suspendida ni suspendido para el ejercicio de funciones públicas. En el caso de no poseer nacionalidad española no estar sometido a sanción disciplinaria o condena penal que impida, en su Estado, el acceso a la función pública. Este requisito se acreditará mediante declaración jurada.
4.- Eginkizunak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.	4.- Poseer la capacidad funcional para el desempeño de las tareas.
5.-Instantzia-curriculuma behar bezala beteta aurkeztea.	5.-Presentar Instancia-curriculum debidamente formalizada.
6.- Lehiaketan parte hartzeko tasak ordaintzea. Lehiaketatik kanpo geratuko dira eskariak aurkezteko epean diru kopuru horiek osorik ordaindu ez dituzten lehiakide guztiak, eta ez da beste eperik zabalduko tasok ordaintzeko edo osatzeko.	6.- Abonar las tasas de participación. Serán excluidas todas aquellas personas aspirantes que no hayan abonado las precitadas cantidades, en su totalidad, dentro del plazo habilitado para la presentación de instancias, no concediéndose plazo alguno adicional para el abono o complementación de las mismas.

<b>1. 2.- Baldintza akademikoak:</b>	<b>1. 2. – Requisitos de carácter académico:</b>
1.- Kontratu bakoitzak eskatzen duen titulu akademikoa edukitzea.	1.- Estar en posesión del título académico exigido para cada contrato.
2.- Lanpostua elebiduna izanik euskaraz irakasteko gaitasuna egiaztu behar bada, ondorengo agiriak onartuko dira: Euskarako errektoreordeak 2002ko ekainaren 5ean emandako Erabakian (uztailaren 11ko EHAA) zehaztutakoari jarraituz eskuratutako gaitasun agiria, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 mailaren pareko tituluak (2010eko azaroaren 15eko EHAA) edo 47/2012 Dekretuak, apirilaren 3koak, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztagabetutako salbuesteko denak, zehaztutakoa.	2.- En los contratos bilingües: tener la capacidad para la docencia en lengua vasca, capacidad que se acreditará conforme a lo establecido en la Resolución del Vicerrector de Euskera de 5 de junio de 2002 (BOPV de 11 de julio) o con la aportación de títulos equivalentes al nivel C1 del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas (BOPV de 15 de noviembre de 2010) o conforme a lo establecido en el Decreto 47/2012, de 3 abril, de reconocimiento de los estudios oficiales realizados en euskera y de exención de la acreditación con títulos y certificaciones lingüísticas en euskera.
3.- Hizkuntza ez ofizialen bat jakin behar den kontratuetarako, beharrezkoa izango da kasuan kasuko hizkuntzan irakasteko gaitasuna egiaztatzea, ofizialak ez diren hizkuntzetan irakaskuntza eskaintzeko egiaztagiria eskuratzeari buruzko araudian ezarritakoari jarraituz (Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluaren Erabakia, 2010eko ekainaren 24koa, 2010/12/02ko EHAA), bai eta Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2012ko martxoaren 8ko erabakiaren eranskinean ezarritakoari ere (ofizialak ez diren hizkuntzen baliokidetzari buruzko erabakia).	3.- En los contratos con el requisito de acreditar el conocimiento de un idioma no oficial será necesario tener la capacidad para la docencia en dicho idioma, capacidad que se acreditará conforme a lo establecido en el Acuerdo, de 24 de junio de 2010, del Consejo de Gobierno de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea por el que se aprueba la Normativa sobre la obtención de la Acreditación para impartir docencia en idiomas no oficiales (BOPV 2-12-2010) y en el Anexo de la Resolución de 8 de marzo de 2012, del rector de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko, sobre equivalencia de lenguas no oficiales.
<b>1.3. – Beste baldintza batzuk:</b>	<b>1.3.– Otros requisitos:</b>
Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako plazetan (ikusi oharren atala plazen zehaztasunetan), lehiakideak desgaitasuna egiaztu beharko du, bai eta zereginak eta eginkizunak betetzeko bateragarritasuna ere.	En el caso de plazas reservadas a personal con discapacidad (ver apartado observaciones en la descripción de las plazas), las personas aspirantes deberán acreditar la discapacidad así como la compatibilidad con el desarrollo de las tareas y funciones.

<p>Desgaitasuna duten pertsonatzat joko dira Desgaitasuna daukaten pertsonen eskubideei eta haien inklusio sozialari buruzko Lege Orokorraren testu bateginean hala definitutakoak (1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, 4. art.), hau da, administrazioko organo eskudunak % 33ko desgaitasuna edo handiagoa aitortu dienak.</p>	<p>A tal efecto, se entenderá por personas con discapacidad las definidas en el artículo 4 del Real Decreto Legislativo 1/2013, de 29 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley General de derechos de las personas con discapacidad y de su inclusión social, es decir, aquellas a quienes se les haya reconocido un grado de discapacidad de igual o superior al 33 por 100 por el órgano competente de la Administración.</p>
<p>Unibertsitateko irakaskuntza eta ikerketa esparrutik kanpo ospe aitortua duen lanbide batean aritzeko, eskatzaileak egiaztatu beharko du unibertsitatean irakasle aritzeko gaitzen duen titulu akademikoari dagokion arloan lan ordaindua egin duela.</p>	<p>El ejercicio de una actividad profesional de reconocido prestigio fuera del ámbito docente e investigador de la Universidad se acreditará mediante la certificación del ejercicio profesional remunerado de actividades para las que capacite el título académico que permita impartir la docencia universitaria.</p>
<p>Kontuan izan beharko da, halaber, prestakuntzarako edo ikerketarako beken bitartez egindako lanak (interesdunei dirulaguntza ematen zaienean) ez direla jarduera profesional ordaindutzat hartuko, diru hori ez baita ordainsaria; ondorioz, lehiaketa honetan onartuak izateko, jarduera horiek ezin izango dira jardun profesional gisa egiaztatu.</p>	<p>Debe tenerse en cuenta además que los trabajos realizados mediante becas de formación o investigación por las que las interesadas y los interesados perciben ayudas económicas, pero no propiamente retribuciones, no tienen la consideración de actividad profesional remunerada y que, por tanto, no supone acreditar dicho ejercicio profesional a los efectos de ser admitidas u admitidos en este concurso.</p>
<p>Hautagaiek, lehiaketan onartua izateko, egiaztatzen duten jarduera profesionalak Unibertsitateko irakaskuntza eta ikerketa esparrutik kanpoka izan behar du. Hori horrela, prozesutik kanpo geratuko dira edozein unibertsitatetan irakasle eta/edo ikertzaile soilik jardun duten hautagai guztiak, unibertsitatetik kanpoko jarduera profesional ordaindurik ez egiaztatzeagatik.</p>	<p>La actividad profesional que las candidatas y candidatos acrediten para poder ser admitidas o admitidos en los concursos, deberá tener lugar fuera del ámbito docente e investigador de la Universidad, con lo que serán excluidos, por no acreditar el ejercicio remunerado de actividad profesional fuera de la Universidad, todas las candidatas y candidatos que únicamente desempeñen actividades docentes y/o investigadoras en cualquier Universidad.</p>
<p>Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko irakasguneetan irakasgai klinikoa irakasteko kontratueta, espezialista titulua eduki behar da eta dagokion ospitalean zerbitzuak ematen aritu; izan ere, kontratuaren xede den irakaskuntza jardunaren helburua da, hain zuzen ere,</p>	<p>En aquellos contratos con destino en Unidades Docentes de la Facultad de Medicina y Enfermería que tengan por objeto la impartición de asignaturas clínicas estar en posesión del título de especialista y estar prestando servicios en el Hospital correspondiente, dado que la actividad</p>

<p>ospitaleko jardun asistentzialaren barnean irakasgai kliniko horiek irakastea. Kontratua formalizatu ondoren langileak ospitalean lan egiteari uzten badio, kontratua baliogabetu egingo da.</p>	<p>docente objeto del contrato consiste precisamente en impartir dichas asignaturas clínicas en el desarrollo de su actividad asistencial en dicho hospital. En el supuesto de que una vez formalizado el contrato la trabajadora o el trabajador dejará de prestar servicios en el Hospital, el contrato será resuelto.</p>
<p>Eskariak aurkezteko epea amaitu aurretik eduki beharko dira beteta lehiaketan parte hartzeko baldintzak.</p>	<p>La concurrencia de los requisitos para participar en el concurso, deberá estar referidas siempre a la fecha de expiración del plazo fijado para solicitar la participación en el concurso.</p>
<p>2. Agiriak</p>	<p><b>2. Documentación</b></p>
<p><b>2.1.- Lehiakideek aurkeztu beharreko agiriak</b></p>	<p><b>2.1.- Documentación a presentar por las personas concursantes</b></p>
<p>Lehiaketan parte hartu nahi dutenek ESKARIA igorri beharko diote Euskal Herriko Unibertsitateko Irakasle-ikertzailen arloko errektoreordeari, ondoko <b>AGIRI</b> hauek erantsita:</p>	<p>Quienes deseen tomar parte en el concurso formularán la correspondiente SOLICITUD remitida a el/la Ilmo. /a. Sr/a. Vicerrector/a de Personal Docente e Investigador de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, acompañada de la siguiente <b>DOCUMENTACIÓN</b>:</p>
<p>1. Instantzia-curriculuma, behar bezala beteta.</p>	<p>1. Instancia – Curriculum debidamente formalizada.</p>
<p>2. Titulu akademikoaren fotokopia soila edo, hori eduki ezean, titulua lortzeko eskubideak ordaindu egin direla adierazten duen egiaztagiriaren fotokopia.</p>	<p>2. Fotocopia simple del título académico o, en su defecto, fotocopia de la certificación supletoria del mismo que se emite una vez que se han abonado los derechos para su expedición.</p>
<p>Lanpostu bakotzerako eskatzen den titulua atzerrian lortu bada, tituluaren balioa baldintzatuta egongo da, agiri hauen menpe:</p>	<p>En el caso de que la titulación exigida para cada una de las plazas se haya obtenido en el extranjero su validez estará condicionada bien:</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikasketa mailako baliokidetza adierazpena. Baliokidetza adierazpena egiazatzeko, titulua eman duen unibertsitateak emandako baliokidetza egiaztagiria aurkeztu beharko da, bat etorrira urriaren 18ko 899/2022 Errege Dekretuan zehaztutako prozedurarekin.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- A su declaración de equivalencia al nivel académico. La declaración de equivalencia se acreditará mediante el certificado de equivalencia expedido por la Universidad que la otorgue conforme al procedimiento previsto en el Real Decreto 899/2022, de 18 de octubre (BOE 19/10/2022).</li> </ul>



<ul style="list-style-type: none"> <li>- Titulua balioduna dela zehazten duten alde biko edo askotariko nazioarteko akordioak edo hitzarmenak (822/2021 Errege Dekretua, irailaren 28ko, Unibertsitateko irakaskuntzen antolaketa eta irakaskuntza horien kalitatea ziurtatzeko procedura ezartzen dituena; 2. xedapen gehigarria).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- A la existencia de acuerdos o convenios internacionales bilaterales o multilaterales que expresamente establezcan dicha validez (Disposición adicional 2º del Real Decreto 822/2021, de 28 de septiembre, por el que se establece la organización de enseñanzas universitarias y del procedimiento de aseguramiento de su calidad).</li> </ul>
<p>3. Nortasun Agiri Nazionalaren edo agiri baliokidearen kopia. Spainiar nazionalitatea ez daukaten lehiakideek NANaren agiri baliokidea aurkeztu beharko dute, nor diren eta nazionalitatea egiaztatzeko.</p>	<p>3. Copia del documento nacional de identidad o documento equivalente. Los aspirantes que no posean la nacionalidad española deberán aportar copia del documento equivalente que acredite su identidad, así como su nacionalidad.</p>
<p>4. Zinpeko aitormena. Lehiakideak ezin izango dira egon diziplina espidentearen bidez administrazio publikoetatik aldenduta, eginkizun publikoak betetzeko ezgaituta eta ezin izango dute etenda izan eginkizunok betetzeko eskubidea. Zinpeko aitormenean horixe ageri beharko da jasota.</p>	<p>4. Declaración jurada de no haber sido separada o separado, mediante expediente disciplinario, del servicio de cualquiera de las Administraciones Públicas, ni hallarse inhabilitada o inhabilitado o suspendida o suspendido para el desempeño de funciones públicas.</p>
<p>5. Tasen jatorrizko ordainagiria.</p>	<p>5. Resguardo original del abono de tasas.</p>
<p>Lehiakideek frogatu beharko dute eskatzen duten lanpostu bakoitzari dagozkion tasak ordaindu dituztela, eta horretarako jatorrizko ordainagiria aurkeztu beharko dute eskariarekin batera. Hauek dira ordaindu beharreko tasak:</p>	<p>Las personas aspirantes deberán justificar, mediante resguardo original que deberá unirse a la solicitud que se presente para participar en el concurso, haber abonado, por cada una de las plazas que se soliciten, según se detalla a continuación y para cada caso, la cantidad de:</p>
<p>. - <b>23,49</b> euro, gutxienez lizentziatu, graduadun, arkitekto edo goi mailako ingenieriaren titulazioa eskatzen den lanpostuetarako.</p>	<p>. - <b>23,49</b> euros, tratándose de plazas para las que se exija una titulación mínima de Licenciado, Arquitecto o Ingeniero Superior o grado.</p>
<p>. - <b>19,58</b> euro, gutxienez unibertsitateko diplomatu, arkitekto tekniko edo ingenieri teknikoaren titulazioa eskatzen den lanpostuetarako.</p>	<p>. - <b>19,58</b> euros, tratándose de plazas para las que se exija una titulación mínima de Diplomada o Diplomado Universitaria o Universitario, Arquitecta o</p>

	Arquitecto Técnico o Ingeniera o Ingeniero Técnico.
Eskubideak ordaintzeko, ondoko kontu korrontean egin beharko da sarrera edo transferentzia:	El pago de los derechos se efectuará mediante ingreso o transferencia bancaria a la cuenta corriente siguiente:
KUTXABANK	KUTXABANK
UPV/EHUko Irakasle-ikertzaileen Errektoreordetza. Irakasleen lehiaketetako tasak.	UPV/EHU Vicerrectorado de Profesorado. Tasas Concursos Profesorado.
IBAN zenbakia: ES73 2095 0292 94 3239002233	Número IBAN: ES73 2095 0292 94 3239002233
Izen-abizenak zehaztu beharko dira bertan, bai eta plazaren zenbakia ere. Bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Procedura Erkideari buruzko Legeko 16. artikuluan ezarririko edozein prozedura erabil daiteke.	Especificando el nombre, apellidos y número de orden de la plaza a la que concursa, o por cualquiera de los medios establecidos en el artículo 16 de la Ley del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.
Ordainketa posta edo telegrafia igorpenaren bidez egiten duten lehiakideek Deialdi eta Lehiaketen Atalera bidali behar dute (1.397 posta kutxatila, 48080 - Bilbo).	Las personas concursantes que efectúen el pago mediante giro postal o telegráfico deberán dirigirlo a la Sección de Convocatorias y Concursos, apartado de correos 1.397, 48080 Bilbao.
6. Lanpostua elebiduna izanik euskaraz irakasteko gaitasuna egiaztatu behar bada, ondorengo agiriak onartuko dira: Euskarako errektoreordeak 2002ko ekainaren 5ean emandako Erabakian (uztailaren 11ko EHAA) zehaztutakoari jarraituz eskuratutako gaitasun agiria, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 mailaren pareko tituluak (2010eko azaroaren 15eko EHAA) edo 47/2012 Dekretuak, apirilaren 3koak, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatuetik salbuesteko denak, zehaztutakoa.	6. En los contratos bilingües la acreditación de la capacidad para la docencia en lengua vasca, capacidad que se acreditará conforme a lo establecido en la Resolución del Vicerrector de Euskera de 5 de junio de 2002 (BOPV de 11 de julio), con la aportación de títulos equivalentes al nivel C1 del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas (BOPV de 15 de noviembre de 2010) o conforme a lo establecido en el Decreto 47/2012, de 3 de abril, de reconocimiento de los estudios oficiales realizados en euskera y de exención de la acreditación con títulos y certificaciones lingüísticas en euskera.
7. Hizkuntza ez ofizialen bat jakin behar den kontratueta rako,	7. En los contratos con el requisito de un idioma no oficial será necesario

<p>beharrezkoa izango da kasuan kasuko hizkuntzan irakasteko gaitasuna egiaztatzea, ofizialak ez diren hizkuntzetan irakaskuntza eskaintzeko egiaztagiria eskuratzeari buruzko araudian ezarritakoari jarraituz (Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluaren Erabakia, 2010eko ekainaren 24koa, 2010/12/02ko EHAA), bai eta Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearen 2012ko martxoaren 8ko erabakiaren eranskinen ezarritakoari ere (ofizialak ez diren hizkuntzen baliokidetzari buruzko erabakia).</p>	<p>la acreditación de la capacidad para la docencia en dicho idioma, capacidad que se acreditará conforme a lo establecido en el Acuerdo, de 24 de junio de 2010, del Consejo de Gobierno de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea por el que se aprueba la Normativa sobre la obtención de la Acreditación para impartir docencia en idiomas no oficiales (BOPV 2-12-2010) y en el Anexo de la Resolución de 8 de marzo de 2012, de el/la rector/a de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Univertsitateko, sobre equivalencia de lenguas no oficiales.</p>
<p>Azken erabaki hori eta bere eranskinak egunerautu egin dira UPV/EHUko Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko errektoreordeak 2017ko maiatzaren 22an emandako erabakiaren bidez.</p>	<p>Esta última resolución, así como su anexo, han sido actualizados por la resolución del 22 de mayo de 2017, de la Vicerrectora de Coordinación y Relaciones Internacionales de la UPV/EHU.</p>
<p>8. Curriculumean alegatutako merezimenduen egiaztagirien fotokopia soila (ez aurkeztu jatorrizkorik, agiriak ez dira-eta itzuliko), sailak deialdi honetako 1.2.2 eta 2.2.2 oinarrietan adierazitako txostenetan egin dezaten; izan ere, txosten hori egiteko oinarri bakarra izango dira lehiakideak eskariak aurkezteko epean alegatutako eta egiaztatutako merezimenduak.</p>	<p>8. Fotocopia simple de todos aquellos documentos que acrediten los méritos alegados en el currículum, no debiendo en ningún caso adjuntarse originales pues tal documentación no será devuelta, al objeto de que por parte del Departamento se emita el informe al que se aluden las bases 1.2.2 y 2.2.2. de la presente convocatoria, que se realizará, exclusivamente, en atención a los méritos alegados y justificados dentro del plazo de presentación de instancias por la persona candidata.</p>
<p>9. Lan esperientzia, oro har, honelaegiaztatuko da:</p>	<p>9. La experiencia profesional se acreditará, con carácter general, de la siguiente forma:</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Sektore pribatuan beste batzuen konturako lan esperientzia izanez gero, lan kontratuaren kopia eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Cuando se trate de experiencia profesional por cuenta ajena en el sector privado mediante la copia del contrato de trabajo y certificación de</li> </ul>

<p>Orokorra emandako ziurtagiria (Lan-bizitzaren agiria). Enpresaren ziurtagiria ere aurkeztu beharko da, betetako lanpostuak eta zereginak zehaztuta. Sektore publikoan beste batzuen konturako jardun profesionala izanez gero, interesdunaren zerbitzuak kontratatu dituen Administrazioaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, bertan adierazita zer lan egin duen.</p>	<p>la Tesorería General de la Seguridad Social (Informe Vida Laboral). Se acompañará certificado de la empresa en el que se expliquen los puestos y labores realizadas. Cuando se trate de actividad profesional por cuenta ajena en el sector público se acreditará mediante certificado expedido por la Administración en la que la candidata o candidato preste servicios en la que se ponga de manifiesto el trabajo realizado por la misma o el mismo.</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Norbere konturako lan esperientzia izanez gero, egindako jardueren zinpeko aitorpenaren bidez eta dagokion Ogasun Sailak emandako ziurtagiriaren bitarte (jarduera ekonomiko gaineko zergan izandako alta aldiak jasotzen dituena). Aurrekoaz gain, egindako lanak egiazatzeko, agiriak aurkeztu beharko dira (BEZ aitorpenak, adibidez).</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Cuando se trate de experiencia profesional por cuenta propia mediante declaración jurada de las actividades realizadas y la certificación de la Hacienda correspondiente con los períodos de alta en el Impuesto de Actividades Económicas. Además de lo anterior resultará necesario aportar documentación justificativa de los trabajos efectivamente realizados (declaraciones de IVA por ejemplo).</li> </ul>
<p><b>2.2.- Unibertsitateak ofizioz aurkeztu beharreko agiriak.</b></p>	<p><b>2.2.- Documentación a aportar de oficio por la Universidad</b></p>
<p>UPV/EHU egindako irakasle lanari dagokion dokumentazioa Administrazioak aurkeztuko du ofizioz.</p>	<p>La documentación relativa a los servicios docentes prestados en la UPV/EHU será aportada de oficio por la Administración.</p>
<p><b>3.- Eskabideak aurkezteko modua.</b></p>	<p><b>3.- Presentación de instancias.</b></p>
<p>Eskabide edo instantzia-curriculumaren ereduak Unibertsitatearen webgunean egongo dira eskuragarri, eta eskaera bana egin beharko da lehiatu nahi den lanpostu guztietañ, horietako bakoitzari dagokion dokumentazioa erantsita. Eskabideak aurkezteko epea: <b>2023ko ekainaren 2tik 2023ko ekainaren 21era (biak barne).</b></p>	<p>Los modelos de instancia-curriculum estarán disponibles en la página web de la Universidad y deberá presentarse una instancia y documentación por cada plaza a la que se concurse. El plazo de presentación de instancias comprenderá desde <b>el 2 de junio de 2023 hasta el 21 de junio de 2023, ambos inclusive.</b></p>
<p>Administrazio Publikoen Administrazio Procedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 14.e) artikuluan adierazitakoaren arabera, eta bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin (erabaki horrek onartu</p>	<p>De conformidad con lo establecido en el artículo 14 e) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y en la resolución del Secretario General de la UPV/EHU de 28 de abril de 2021, por la que se aprueba la instrucción sobre</p>

<p>egiten ditu interesatuak UPV/EHUREkiko harreman elektronikoetan identifikatzeko eta sinadura elektronikoa erabiltzeko jarraibideak, bai eta erakunde horretan lanean ari diren pertsonak identifikatu eta sinadura elektronikoa erabiltzeoak ere), eskaera aurkeztu behar da UPV/EHUko erregistro elektronikoaren bitartez <a href="https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico">https://egoitza.ehu.eus/eu/registro-electronico</a>. Bertan sartuta, "Jasotzailea" atalean "Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetza" aukeratu behar da eta, bigarrenetan, "Deialdi eta Lehiaketa Atala (U02000368)". Horretarako, identifikazio elektronikorako sistema hauetakoren bat erabili beharko da: Izenperen ziurtagiri digitala, UPV/EHUREn txartela (Izenpe), NAN elektronikoa, edo Diruaren eta Zerga Zigliuaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES).</p>	<p>identificación y firma electrónica de las personas interesadas en sus relaciones electrónicas con la UPV/EHU y de las personas empleadas que prestan servicios en la misma, la solicitud deberá presentarse en el registro electrónico de la UPV/EHU, ubicado en la dirección URL <a href="https://egoitza.ehu.eus/es/registro-electronico">https://egoitza.ehu.eus/es/registro-electronico</a>, eligiendo en "Destino" de la solicitud al "Vicerrectorado de Personal Docente e Investigador y, en segundo lugar, "Unidad de Convocatorias y Concursos" (U02000368). Para ello, se deberá utilizar el certificado electrónico de empleado o empleada de la UPV/EHU, el certificado Digital de Usuario de Izenpe, el DNI electrónico o el certificado de la Fábrica Nacional de Moneda y Timbre FNMT-CERES.</p>
<p>Era berean, eskaria aurkeztu ahal izango da sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoan eta, ohiz kanpoko kasuetan, erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUREn bulegoetan, aurrez aurre. Erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUREn bulegoetan aurkezten diren eskariak eta dokumentuak digitalizatu egingo dira administrazio espediente elektronikoan sartzeko, eta jatorrizkoak interesdunari itzuliko zaizkio, interesduna funtzionarioaren aurrean identifikatu eta horrela jarduteko berariazko adostasuna adierazi ondoren; guztia bat etorrita UPV/EHUko idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin, horren bidez onartzen baitira gai hauei buruzko jarraibideak: erregistro gaietan laguntzeko bulegoak; eskaerak, idatziak edo bestelako komunikazioak funtzionario publiko gaituaren bidez aurkeztea UPV/EHUn; eta funtzionario publiko gaituen erregistroa.</p>	<p>Asimismo, podrá presentarse en los restantes registros electrónicos de cualquiera de las entidades pertenecientes al sector público, y, en casos excepcionales, presencialmente en las oficinas de asistencia en materia de registros de la UPV/EHU. Las solicitudes y documentos presentados en las oficinas de asistencia en materia de registros de la UPV/EHU serán digitalizados para su incorporación al expediente administrativo electrónico, devolviéndose los originales a la persona interesada, previa su identificación ante la persona funcionaria y otorgamiento de consentimiento expreso para esta actuación, de conformidad con la resolución del Secretario General de la UPV/EHU de 28 de abril de 2021, por la que se aprueba la instrucción sobre oficinas de asistencia en materia de registros, la presentación en la UPV/EHU de solicitudes, escritos u otras comunicaciones a través de persona funcionaria pública habilitada y el registro de personas funcionarias públicas habilitadas.</p>
<p>Erregistro gaietan laguntzeko bulegoen zerrenda jendaurrean dago UPV/EHUko ikastegietako idazkaritzetan, Leioako</p>	<p>La relación de oficinas de asistencia en materia de registros de la UPV/EHU estará a disposición del público en las Secretarías de los centros de la UPV/EHU, así como en las</p>

<p>Errektoregoko eraikinean, Bilboko Larrako Etxean, Arabako Campuseko Errektoreordetza (Gasteiz), eta Ignacio M<sup>a</sup> Barriola ikasgelategian (Donostia). Era berean, Interneten ere eskuragarri dago: <a href="http://www.ehu.es/oficinas_registro.html">http://www.ehu.es/oficinas_registro.html</a>. Bestalde, gune horretan bertan daude ikusgai bulegoentzako ordutegiak: <a href="https://www.ehu.eus/eu/web/idazkaritzanagusia/upv/ehuko-erregistro-orokorraren-ordutegia">https://www.ehu.eus/eu/web/idazkaritzanagusia/upv/ehuko-erregistro-orokorraren-ordutegia</a></p>	<p>oficinas del Rectorado de Leioa, Larrako Etxea de Bilbao, Vicerrectorado de Campus de Álava en Vitoria y Aulario Ignacio M.<sup>a</sup> Barriola de Donostia-San Sebastián. Asimismo, puede consultarse en Internet: <a href="http://www.ehu.es/oficinas_registro.html">http://www.ehu.es/oficinas_registro.html</a>. El horario de las oficinas en materia de registros puede consultarse en este esta dirección <a href="https://www.ehu.eus/es/web/idazkaritzanagusia/upv/ehuko-erregistro-orokorraren-ordutegia">https://www.ehu.eus/es/web/idazkaritzanagusia/upv/ehuko-erregistro-orokorraren-ordutegia</a>.</p>
<p>Eskaria posta bulegoetan aurkezten dutenek abenduaren 3ko 1829/1999 Errege Dekretuko 31. artikuluak xedatutako moduan aurkeztu behar dute. Errege dekretu horrek posta zerbitzuak arautzen ditu, eta honako hau xedatzen du:</p>	<p>Las personas interesadas que presenten su instancia en las oficinas de correos deberán hacerlo en la forma que establece el artículo 31 del Real Decreto 1829/1999, de 3 de diciembre, que aprueba el Reglamento por el que se regula la prestación de servicios postales, estableciendo lo siguiente:</p>
<p><i>"Herritarrek edo erakundeek posta zerbitzu orokorra erabiltzen dutenean administrazio publikoei eskariak, idatzia eta jakinarazpenak bidaltzeko, gutun azala irekita aurkeztu beharko dute posta bulegoan, bidali nahi duten dokumentuaren lehenengo orriko goiburuan posta zerbitzukoek argi eta garbi adieraz ditzaten bulegoaren izena eta bidalketaren lekua, eguna, ordua eta minutua. Era berean, igorlek eska dezake bidalketaren xehetasunak agertzea bidali nahi duen dokumentu nagusiaren kopiaren, fotokopiaren edo erreprodukzioaren lehenengo orrian, postako langileak jatorrizkoa eta kopia erkatu eta berdinak direla egiaztatu ondoren; fotokopia hori ziurtagiri gisa aurkeztuko zaio administrazioko organo eskudunari, dokumentu nagusia aurkeztu egin dela frogatzeko.</i></p>	<p><i>"Las solicitudes, escritos y comunicaciones que los ciudadanos o entidades dirijan a los órganos de las Administraciones Pùblicas, a través del operador al que se le ha encomendado la prestación del servicio postal universal, se presentarán en sobre abierto, con objeto de que en la cabecera de la primera hoja del documento que se quiera enviar, se hagan constar, con claridad, el nombre de la oficina y la fecha, el lugar, la hora y minuto de su admisión. El remitente también podrá exigir que se hagan constar las circunstancias del envío, previa comparación de su identidad con el original, en la primera página de la copia, fotocopia u otro tipo de reproducción del documento principal que se quiera enviar, que deberá aportarse como forma de recibo que acredite la presentación de aquél ante el órgano administrativo competente.</i></p>
<p>Aipaturiko diligentiak egin ostean, igorlek berak itxiko du gutun azala, eta enplegatuak onarprena formalizatu eta onarpenaren gordekina emango dio; jatorrizkoa, berriz, bulegoan artxibatuko du.</p>	<p>Practicadas las diligencias indicadas, el propio remitente cerrará el sobre, y el empleado formalizará y entregará el resguardo de admisión, cuya matriz archivará en la oficina.</p>
<p>Posta zerbitzu orokorraren bidez artikulu</p>	<p>Los envíos aceptados por el operador al que</p>

<p><i>honetan zehaztutako moduan egiten diren bidalketak behar bezala bidalitzakotzat joko dira, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 16. artikuluan xedatzen duenaren arabera".</i></p>	<p><i>se encomienda la prestación del servicio postal universal, siguiendo las formalidades previstas en este artículo, se considerarán debidamente presentados, a los efectos previstos en el artículo 16 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y su normativa de desarrollo."</i></p>
<p>Eskaria atzerrian aurkeztuz gero, Espainiak herrialde horretan daukan ordezkaritza diplomatikoan eta kontsuletxean egin beharko da: ez du balio izango atzerriko posta zerbitzuaren bidez bidaltzeak.</p>	<p>Téngase en cuenta, que, de presentar la instancia de participación en el concurso en el extranjero, deberá realizarse en la correspondiente representación diplomática u oficina consular de España, no siendo válida la presentada a través de los Servicios Postales en el extranjero.</p>
<p>Eskaerak aurkezteko epea bukatu ondoren, ez da beste eperik zabalduko merezimendu gehiago edo eskaeran adierazitako agiriak aurkezteko</p>	<p>Una vez cerrado el plazo de admisión de solicitudes, no se volverá a abrir plazo alguno para presentar méritos o justificar los expuestos.</p>
<p>Eskariarekin batera aurkeztutako agiriak bi hilabetean izango dituzte gordeta Deialdi eta Lehiaketen Atalean, epaimahaiak proposamena egiten duen egunetik hasita, baina proposamen horren kontrako errekurtsorik aurkezten bada, dokumentuak gordeta izan beharko dira ebazpen irmoa ematen denera arte.</p>	<p>Los documentos que acompañen a la solicitud permanecerán depositados en la Sección de Concursos durante un plazo de dos meses desde la fecha de la propuesta de la Comisión, salvo que se interponga algún recurso, en cuyo caso el depósito continuará hasta que haya resolución firme.</p>
<p>Urtebete igaro, eta interesatuak ez badira agiriak hartzera joan, unibertsitateak txikitu ahal izango ditu agirio.</p>	<p>Transcurrido un año adicional sin que las interesadas/os hubieran retirado dicha documentación, la universidad podrá disponer su destrucción.</p>
<p><b>4.- Onartuen eta baztertuen zerrenda.</b></p>	<p><b>4.- Lista de admitidos y excluidos</b></p>
<p>Eskariak aurkezteko epea amaiturik, unibertsitateko errektoreak onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratuko du Irakasle-ikertzaileen Ataleko iragarki oholean eta unibertsitatearen webgunean, eta hamar eguneko epea irekiko da, zerrenda hori webgunean argitaratzen den egunetik aurrera, errakuntzak zuzentzeko eta erreklamazioak aurkezteko. Epe horretan, baina, lehiakideek ezin izango dute merezimendu berririk aurkeztu, ez eta lehendik zehaztatukorik egiaztatu. Epe</p>	<p>Finalizado el plazo de admisión de instancias, la Rectora de la Universidad hará pública en el tablón de anuncios del PDI y en la página web de la universidad, la lista provisional de personas candidatas admitidas y excluidas, abriendose un plazo de diez días, a partir de la fecha de publicación de dicha lista en la página web para subsanación de errores, así como para presentar reclamación contra la misma. La persona candidata no podrá, dentro de este plazo, presentar nuevos méritos o justificar los anteriormente expuestos. Transcurrido el cual el listado se</p>

<p>hori igarota, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda argitaratuko da eta horren kontra berrazterzko errekursoa aurkeztu ahal izango zaio errektoreari hilabeteko epean edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekursoa jarri ahal izango da zuzenean, bi hilabeteko epean, zerrenda argitaratzen denetik kontatzen hasita. Epea unibertsitatearen web orrian argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da kontatzen. Errekursoa jarri arren, prozesua ez da etengo.</p>	<p>elevará a definitivo, cabiendo contra este último, recurso de reposición en el plazo de un mes ante la Rectora o directamente recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses desde su publicación. El plazo se iniciará a partir del día siguiente al de su inserción en la página web de la Universidad. La interposición de este recurso no suspenderá el procedimiento.</p>
<p>Edozelan ere, onartuen behin betiko zerrendan egongo dira eskariak aurkeztekoe epea bukatu aurretik baldintzak bete eta egiaztatu dituzten lehiakideak.</p>	<p>En todo caso, la lista definitiva de personas concursantes admitidas comprenderá todas aquellas que hayan obtenido y acreditado los requisitos exigidos con efectos dentro del plazo de presentación de solicitudes.</p>
<p>Hautaketa prozesuaren uneren batean administrazioak egiaztatuko balu lehiakideren batek ez duela betetzen lehiaketan zehaztutako baldintzaren bat, lehiakideari bost eguneko epea emango dio falta den agiria aurkezteko. Agiria aurkeztu ezean, lehiaketatik kanpo geratuko da behin betiko. Edozelan ere, lehiaketan parte hartzeko eskatzen diren baldintzak lehiaketan parte hartzeko ezarritako epemuga iristerako bete beharko dira.</p>	<p>Si en cualquier momento del procedimiento selectivo por la Administración convocante se comprobase que alguna persona aspirante carece de alguno de los requisitos exigidos para concurrir, se le concederán 5 días para aportar la pertinente acreditación documental. De no hacerlo así, quedará definitivamente excluido. En cualquier caso, el cumplimiento de los requisitos deberá estar referido siempre a la fecha de expiración del plazo fijado para solicitar la participación en el concurso.</p>
<p><b>5.- Epaimahaia.</b></p>	<p><b>5.- Comisión Evaluadora</b></p>
<p>Lehiaketa ebatzeko, epaimahaia eratuko da eta osaerak objektibotasun, inpartzialtasun, neutraltasun, gardentasun eta kualifikazio printzipioak bermatuko ditu, bat etorrira otsailaren 3ko 3/2004 Legeak, Euskal Unibertsitate Sistemari buruzkoak, 18. artikuluan zehaztutakoarekin, eta UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2011ko apirilaren 14an onartutako aldi baterako irakasleak eta ikertzaileak hautatu eta kontratatzeko arautegiko 5. artikuluarekin (maiatzaren 31ko EHAA). Arautegi horretan zehaztutako irizpide orokor eta zehatzak oinarri hartuta ebatzikoa da lehiaketa. Arautegi honetan zehaztuta ez dauden</p>	<p>Las Concursos serán juzgados y valorados por las correspondientes Comisiones de Evaluación, cuya composición garantizará los principios de objetividad, imparcialidad, neutralidad, transparencia y cualificación previstas en el artículo 18 de la Ley 3/2004, de 3 de febrero del Sistema Universitario Vasco y en el artículo 5 de la regulación para la selección y contratación de personal docente e investigador temporal, aprobado por el Consejo de Gobierno de la UPV/EHU en sesión de 14 de abril de 2011 (BOPV de 31 de mayo), conforme a los criterios generales y específicos establecidos en dicha regulación. Las actuaciones de las Comisiones se acomodarán, en todo lo no</p>

<p>gaietarako, epaimahaiaik Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeak kide anitzeko organoei buruz zehaztutakoari jarraitu beharko dio.</p>	<p>expresamente previsto en la presente convocatoria, a las disposiciones contenidas para los órganos colegiados en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.</p>
<p><b>6. Kontratatzeko proposamena.</b></p>	<p><b>6. Propuesta de contratación</b></p>
<p>Lehiaketa honi dagozkion kontratuak betetzeko proposamenak Unibertsitateko webgunean argitaratuko dira.</p>	<p>Las propuestas de provisión de contratos de este concurso se publicarán en la página web de la Universidad.</p>
<p>Proposatutako pertsonek hiru eguneko epea izango dute, lehiaketaren ebazpena jakinaraziko zaien egunetik aurrera hasita, kontratua sinatzeko. Oso kasu berezietan, eta Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeak hala erabakiko balu, luzatu egin ahal izango da aurreko atalean adierazitako epea.</p>	<p>Las aspirantes propuestas y los aspirantes propuestos dispondrán de un plazo de 3 días a partir del siguiente a aquel en que les sea notificada la resolución del concurso con propuesta en su favor para formalizar el correspondiente contrato. En atención a circunstancias excepcionales cuya concurrencia corresponde apreciar al Vicerrectorado de Profesorado el plazo al que se refiere el apartado anterior podrá ser prorrogado.</p>
<p>Epe horretan interesduna ez bada kontratua sinatzen agertu, irakasle elkartu kontratuari uko egin diola ulertuko da eta, ondorioz, zerrendako hurrengoari deituko zaio.</p>	<p>En el supuesto de que en el referido plazo no se presentaran para la formalización del contrato, se entenderá que renuncian al contrato de profesorado asociado, y, en consecuencia, se procederá al llamamiento del siguiente aspirante que figure en la prelación de suplentes que las Comisiones Evaluadoras hayan, en su caso, establecido.</p>
<p>Beren jarduera nagusia unibertsitateko esparru akademikotik kanpo gauzatzen dutela egiaztatzen duten espezialista eta profesionalak kontratuko dira irakasle elkartu gisa, beren lanbide-eremuarekin lotutako irakaskuntza-premia espezifikoak daudenean (martxoaren 22ko 2/2023 Lege Organikoaren 79.a artikulua). Behin kontratua formalizatuta, kontratu hori mugagabea izango da, unibertsitate-ospitaleetan irakaskuntza klinikoa emateko kontratuei dagokienez ondoren ezarritakoa izan ezik, eta lanaldi partzialeko dedikazioa izango du, eta bere deialdia ez dago efektiboen birjarpentasaren mende (martxoaren 22 ko 2/2023 Lege Organikoaren 79.c artikulua).</p>	<p>Se contratará como profesorado asociado a especialistas y profesionales de reconocida competencia que acrediten ejercer su actividad principal fuera del ámbito académico universitario cuando existan necesidades docentes específicas relacionadas con su ámbito profesional (art.79.a LO 2/2023 de 22 de marzo). Una vez formalizado el contrato, este contrato será de carácter indefinido con la salvedad de lo establecido a continuación respecto a los contratos que tengan por objeto la impartición de docencia clínica en los Hospitales universitarios y conllevará una dedicación a tiempo parcial, sin que su convocatoria esté sujeta a la tasa de reposición de efectivos (art.79.c LO 2/2023 de 22 de marzo).</p>

<p>Osasun Zientzietako Irakasle Elkartuen kontratuen iraupena urtebekoa izango da, eta 3 urterar arte luzatu ahal izango da, Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Osakidetzaren artean sinatutako Itunaren seigarren klausulako 3. Atalean ezarritakoaren arabera.</p>	<p>La duración de los contratos de Profesorado Asociado de Ciencias de la Salud será de un año, prorrogable hasta 3, conforme a lo establecido en la cláusula sexta, apartado 3º del Concierto suscrito entre la Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitatea y Osakidetza- Servicio vasco de salud.</p>
<p>Azkentzoko arrazoi objetiboa izango da Hiri Antolaketako Lege Organikoaren 79. Artikuluko a) idatz-zatian ezarritako baldintzetako edozein gerora galtzea.</p>	<p>Será causa objetiva de extinción la perdida sobrevenida de cualquiera de los requisitos establecidos en el artículo 79, apartado a) de la LOSU.</p>
<p>Ezin dira aldi berean lanaldi partzialeko bi kontratu egin unibertsitate honetan irakaskuntza-zerbitzuak emateko.</p>	<p>No cabe compatibilizar la prestación de servicios docentes en esta Universidad mediante dos contratos simultáneos a tiempo parcial.</p>
<p>Kontratuaren helburua izango da irakasle-lanak egitea, haien ezagutzak eta esperientzia profesionala unibertsitateara ekartzeko, esperientzia hori garrantzitsua den gaietan. Irakaskuntza-lan horiek ezin izango dute barne hartu kudeaketa- eta koordinazio-funtzio estrukturalak betetzea. Irakasle elkartuek gehienez 120 eskola-ordu egin ahal izango dituzte ikasturte bakoitzeko (martxoaren 22ko LO 2/2023 Lege Organikoaren 79.b artikulua).</p>	<p>La finalidad del contrato será desarrollar tareas docentes a través de las que aporten sus conocimientos y experiencia profesionales a la universidad, en aquellas materias en las que esta experiencia resulte relevante. Dichas tareas docentes no podrán incluir el desempeño de funciones estructurales de gestión y coordinación. El profesorado asociado podrá desarrollar tareas docentes hasta un máximo de 120 horas lectivas por curso académico (art.79.b LO 2/2003 de 22 de marzo).</p>
<p>Ebaluazio-batzordeak plaza hutsik utzi ahal izango du, baldin eta lehiakideak ebaluatu aurretik Batzordeak ezarritako gutxieneko puntuaziona lortu duen lehiakiderik edo lehiakiderik ez badago.</p>	<p>La Comisión evaluadora podrá dejar la plaza desierta, siempre que no haya ninguna concursante o ningún concursante que haya alcanzado la puntuación mínima establecida por la Comisión previamente a la evaluación de las y los concursantes.</p>
<p>Ebaluazio Batzordeek kontratuak betetzeko egindako proposamenen aurka, interesdunek gora jotzeko errekursoa aurkeztu ahal izango diote Ebaluazio Batzordeari. Unibertsitate honetako errektorea, hilabeteko epean, proposamen horiek web-orrian argitaratu eta hurrengo egunetiki Aurrera. Hala ere, egoki iritzitako beste edozein gauza egin ahal izango dute, hala badagokio.</p>	<p>Contra las propuestas de provisión de contratos emanadas de las Comisiones de Evaluación, las interesadas y los interesados podrán interponer recurso de alzada ante el Sr/a. Rector/a de esta Universidad, en el plazo de un mes a partir del día siguiente en que sean publicadas dichas propuestas en la página web, sin perjuicio de que puedan ejercitarse, en su caso, cualquier otro que estimen procedente.</p>

<p>Gora jotzeko errekursoaren berri Unibertsitearen webgunean emango zaie interesdun izan daitezkeenei. Errekurtsogilearen aldeko gora jotzeko errekursoa eta kontratacio-proposamena ebazteak berekin ekarriko du kargugabetzea, aurrekoaren bateraezina bada, bai eta irakasle elkartuen kasuan kasuko kontratua formalizatzeko betebeharra ere. Kontratu horretan urtebete egon beharko du kontratua formalizatzen den egunetik Aurrera, eta ezin izango zaio kontratu horri uko egin beste bat formalizatzeko, behar bezala justifikatutako eta Irakasle eta Ikertzaileen errektoreordeak aldez aurretik baimendutako kasuetan izan ezik.</p>	<p>La interposición de un recurso de alzada se anunciará, a las y los posibles interesadas e interesados, en la página web de la Universidad. La resolución del recurso de alzada con propuesta de contratación a favor del recurrente supondrá su cese automático en cualquier contrato que el mismo tuviere como docente en la UPV/EHU incompatible con el anterior, así como su obligación de formalizar el correspondiente contrato de profesorado asociado, en el que deberá permanecer un año a partir de la fecha de su formalización, sin que quepa renunciar a dicho contrato para formalizar otro, salvo supuestos debidamente justificados y previamente autorizados por el/la Vicerrector/a de Personal Docente e Investigador.</p>
<p><b>7. Errekursoak</b></p>	<p><b>7. Recursos</b></p>
<p>Erabaki honen kontra aukerako berrazterte errekursoa aurkez daki oke UPV/EHUko errektoreari hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekursoa jar daiteke zuzenean Bilboko administrazioarekiko auzietako dagokion epaitegietan bi hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.</p>	<p>Contra la presente convocatoria cabe la interposición de recurso potestativo de reposición, ante el Rector, en el plazo de un mes, o bien directamente recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Bilbao correspondiente, en el plazo de dos meses, a partir del día siguiente al de su publicación.</p>
<p>Leioa, 2023ko ekainaren 1a.</p>	<p>Leioa, a 1 de junio de 2023.</p>

#### ERREKTOREA/LA RECTORA

Izenpea eskuordetuta (Errektorearen 2021eko urtarrilaren 28ko Erabakia, 2021/02/12ko EHAA), Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordea / P.D. de firma (Resolución de la Rectora de 28 de enero de 2021, BOPV 12/02/2021), el Vicerrector de Personal Docente e Investigador.